



elgoibar ikastola

Pedro Miguel Urruzuno Koop.



2025-01-09

## ESKER MILA!

Giro bikaina aurten ere urteari agur esateko. Gabon zaharreko ferian hainbat postu, jendea non nahi, bertako produktu eta animalietan gozatzeko aukera paregabea... Aurten ere, Elgoibar Ikastolak Kalebarren plazan txosna jartzeko aukera izan genuen. Eguraldiak lagundu egin zuen, eta bertan sortu zen giroa aparta izan zen. Oso pozik gaude egindako lanarekin.

Eskerrak emateko garaia da. Eskerrik asko Elgoibarko Udalari, Debemen Landa Garapen Elkarteari eta brigadako langileei, hainbat baliabide eskaintzeagatik. Eskerrik asko Eizagirre okindegiari, Armueta, Patxi eta Ziarda harategiei, Eusko Label-dun saihetsa eskaintzeagatik. Manuel Amarori kamioia eskuragarri jarri eta egunean bertan egindako lanagatik. Deuko Izarrari banaketari edari zein beste material batzuk eskaintzeagatik. LizagaSar-i bere sagardo eta sagar zukuarengatik, Nekane Altuberi apaingarriengatik, Jose Ramon Cabrerari argazkiengatik, Burgoa Somoza arraindegiari izotza emateagatik, lanean egon zineten guztiori eta nola ez, mila esker egunean bertan gerturatu zineten guztioi. Girorik ez da zuek gabe-eta.

Aurten ere, 100 pertsona baino gehiago izan garelako antolaketan eta lanean aritu garen ikastolako guraso eta langileak. Esker mila eta bejondeizuela! Bere izaerari jarraituz; herritik, herriarentzat.

## ELGOIBAR IKASTOLAKO TXOSNAKO LAN TALDEA

